

Gipuzkoako diputatu nagusia

Eli Galdos

Azken bi urteetako aurrekontuek ekarri zizkioten estutasunak saihestu nahian edo, 1994ekoak EA eta EUErekin negoziatzea erabaki du Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusiak. Adostasuna erraz lortuko dutela uste du gainera. Krisia dela eta, diru gutxiago egongo da datorren urtean banatzeko eta

ondorioz gastuak ere murriztu egin beharko dira, batez ere «orain arteko mentalitatearekin alferrik egin diren gastuak», Galdosek adierazi duenez. Bere ustez, «testimoniala» izan arren EAJk osoko zuzenketa jarri behar zien Estatuko aurrekontuei PSOE «adarra jotzen ari zaigulako».



«Adostasuna erraz lortzea espero dut»

EGUNKARIA.— Aurrekontu proiektua aurkeztu aurretik akordiorako proposamena egin diezu EAri eta EUEri, eta aste honetan lehen bilera izan duzue. Gobernuak bere gutxiengotasuna bereganatu duela esan nahi du horrek?

GALDOS.— Ez, iaztik bagenekien gutxiengoan geundela. Aurreten, gehienbat krisia hor dagoe-lako, 1993ko aurrekontuekin bezala jokatzeko desioa luzatu diet, irizpide batzuk jarri eta aurrekontuak denon artean egin ez. Beren aldetik borondate ona antzeman nuen bileran, eta uste dut adostasuna erraz lortuko dugula. Datorren astean hasiko gara gai guztiak sakonago aztertzen.

EGUNKARIA.— Ez al da kontraesankorra krisi egoeran ahalik eta akordio zabalena eskatzea eta gero HB, duen ordezkartza eta instituzioetan sarri parte hartzeko eta akordioak lortzeko erakutsi duen borondatea kontuan hartuz, negoziazioetatik baztertzea?

GALDOS.— Prest nago HBrekin edozein akordio lortzeko, baina arau berberekin jokatzeko gero. Bestela baten batek abantailak izango ditu beti. Neretzat Estatutua eta Kontzertua ondo baldin badaude, eta HBk Kupoa ez dela ordaindu behar esaten badu, HBrekin ezingo dut sekula pausorik elkarrekin eman, bide beretik goaz baina berak, ni nere bidetik ateratzea eta bere bidera eramatea nahi du. Horretaz gain, Herri Batasuna ETako ekintza guztiak salatzeraz eta bide horretatik ihes egitera ausartzen ez bada, alferrik da instituzioetara etortzea.

EGUNKARIA.— Ekonomi egoeraren ondorioz, aurrekontu murrizak iragarri dituzue. Nondik norakoak dira Diputazioaren planteamenduak?

GALDOS.— Gure ustez inbertsioak ezin dira gutxitu, Giza Zerbitzuetarako beharrezko gauzak ere ez, eta iaz hasitako gastu arruntaren murrizketak jarraitu beharko du. Funtzionarien soldatak eta goi karguenak ere izoztuko ditugu. Halaber, murriztu behar dugu alferrik egiten den gastua, orain arteko mentalitatearekin ohizkoak izan diren gastu asko, hain zuzen. Diru gu-



Eli Galdosek EArekin eta EUErekin hasi du 1994eko aurrekontuen negoziatzea.

ANDER GILLENEA

PSOE adarra jotzen ari zaigu, gure ezadostasuna agertzeko beharrezkoa zen osoko zuzenketa jartzea.

txi dugu eta hobeto banatu beharko dugu, gure bizimodua eta gobernatzeko jarrera krisiaren errealitate egokitz.

EGUNKARIA.— Orduan, dirua xahutzeaz oposizioak egin dizkiuzuen kritikak bereganatu al dituzu?

GALDOS.— Noski baietz. Egin diren gastu batzuk ez ziren egin behar. Adinduei behar ez diren gauzak ematen ari zaizkie, eta ohitu egiten dira, hori da txarre-na. Denok gara eskuzabalak zenbait gauza dohainik emateko: bidai bat Alacantera, askaria Belodromoan,... Baina hainbeste gazte langabezia dauden, solidarioak izan behar dugu, baita adinduek ere. Gastu hauek sartuta gauden dinamika on-dorio dira, moda bezala jarri da,

baina argi eduki behar da behar-beharrezko gauzak badaudela, beste batzuk ez hain beharrezkoak, eta ezertarako behar ez direnak. Azken hauek baztertu eta kendu behar dira. Autokritika hori egiteko prest nago. Baina gauza bat esan behar dut, iaz oposizioak Giza Zerbitzuak eta Ekonomia departamenduetan guk aurkeztutakoak baino aurrekontu askoz handiagoak onartu zituztela, guk egindakoa gutxiegi zela argudiatuz. Noski, onartutako diru hori gustura gastatu dute.

EGUNKARIA.— Iruzur fiskalaren aurkako borroka eraginkorrako bihurtzea eskatu dizue oposizioak.

GALDOS.— Iruzur fiskala hitz potoloa da eta inpakto handikoa. Horri buruz, demagogia asko egin daiteke, baina beti egongo da iruzur fiskala, ez da posible erabat kentzea, hortaz dudarik ez izan. Ahalegin guztiak egiten dira iruzur fiskala gutxitzeko eta bide bakarra ordenagailua da. Beste aukera da pertsonaia fama-tu bat hartu eta iruzur fiskalean harrapatu, eta propaganda egin iruzurraren kontrako borrokaren irudi gogorra azaltzeko. Jarrera horrek jendea mentalizatzeko balio du, baina ez du ondorio-rik.

EGUNKARIA.— Haziendak uste

Murriztu egin behar dugu alferrik egiten den gastua, orain arteko mentalitatearekin normalak izan diren gastu asko.

baino 20.000 milioi gutxiago jaso ditu aurreten. Oker jokatu zuen Diputazioak aurrikuspena egitean?

GALDOS.— Aurrikuspen bat egiten denean, ez asmatzeko arriskua duzu beti, eta hori gertatu da ez hemen bakarrik, leku guztietan baizik, New Yorketik hasita Errezileraino. Mundu guztiko adituek krisiaz egin zituzten aurrikuspenak ustelak gertatu dira. Sekretua hori da, krisiak iraunduela aditu guztiek prentsatzen zutena baino gehiago, eta oraindik ez dakigu hondoa jo duen ala ez. Horretaz gain, 35.000 langabe gehiago egon dira 1993an eta hori nabaritu egin da PFEZaren sarreretan.

EGUNKARIA.— Administrazioaren modernizazioari ekiteko garaia dela uste duzu?

GALDOS.— Oñatiko alkatea nintzela, Administrazioa handiegia zela esan nuen, eta inork ez zuen sinetsi. Inork ez zuen uste krisia hain luzea izango zenik, eta azkenean ailegatu da Administrazioa. Une honetan, zorionez, erabaki behar dugu nola aldatu gauzak, ea krisiarekin ikasten dugun Administrazioa beste modu batez nola eraman! Hori lehenbailehen egin beharko da eta gu jada egiten ari gara, funtzionarien formazioaren arloan. Garrantzitsuena formazioa da, arkatzarekin edo idazteko makinarekin lan egiten ohituta dagoen jendea irakatsi behar zaio ordenagailuarekin lan egiten. Formazioarekin izugarriko aurrerapausoa emango luke Administrazioak.

EGUNKARIA.— EK-ko kohesio fondoetatik dirua jasotzea lortuz gero, zein eragina izan lezake Gipuzkoan?

GALDOS.— Jaurlaritzak eta hiru diputazioek Madrilera daukagun borroka bat da, eta datorren urtean gogorragoa izango da. Oso-oso garrantzitsua litzateke hortik dirua jasotzea, errepide batzuen gastuen % 80 finantzatzeko litzatekeelako. Une honetan gogorra autobidea da, 25.000-26.000 milioiko kostua du eta Europatik dirua etorritik gero erdian geratuko litzateke.

EGUNKARIA.— Estatuko aurrekontuei EAJk osoko zuzenketa jartzearen aldeko jarrera azaldu zenuen. Zergatik?

GALDOS.— Adarra jotzen ari zaigulako. Testimoniala izan arren, gure ezadostasuna agertzeko beharrezkoa zen osoko zuzenketa jartzea, nahiz eta niri ez zitzaidan batere gustatzen PPrekin gauza berean sartzea. Baina, sozialistak gezurra esaten ari dira hau transferentziekin lotzean. Hasieratik EAJ, apo asko irentsi ondoren, prest azaldu zen, borondate onaren adierazgarri gisa, Gonzalez babesa emateko kargu hartze ekitaldian. Legebiltzarrak 54 transferentzien inguruan hartutako erabaki bat dago eta hori bukatu beharra dago. Ez da EAJk soilik eskatzen duen gauza, baina beraiek deitu zigutenez, baldintza gisa jarri genien Legebiltzarrak onartutakoa martxan ipintzea. Baina ez dute nahi.